

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure negozioaren salmentak hobetzeko, marketin-tresnak erabiliko ditugu. Bilboko tokiko egunkariarekin harremanetan jarriko gara gure produktuak sustatzeko eta gure bezero izan daitezkeen artean ezagutarazteko. Horrela, bezero gehiago erakarri ahal izango ditugu.

Pandemia dela eta, beste plan bat prest izango dugu negozioa modu presentzialean ixtea erabakitzen bada. Horretarako, online salmenta eta etxez etxeko entrega indartuko ditugu, Eusko Jaurlaritzak eskatzen dituen segurtasun- eta osasun-neurri guztiak bermatuz.